

BBVA FUNDAZIOA: BIG DATAREN ARLOKO ZIENTZIA IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZAK 2017

Lehentasunezko ikerketa arloak:

Oinarrizko ikerketa proiektuak edo ikerketa aplikatukoak, big data eta complex dataren analisirako, barne hartuta arlo haueko teknika eta algoritmoak: machine learning, classification and regression trees, linear models for wide data, random forest and boosting, support vector machines eta pattern recognition o data visualization.

Proiektuen iraupena:

Proiektuek 2 urteko iraupena izango dute.

Finantzaketa:

100.000 euro gordineko 5 laguntza.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- Espainiar nazionalitatea edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian izatea.
- Doktore titulua.
- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Eskari bakoitzak ikertzaile nagusi bakar bat izan dezake.
- Ikertzaile nagusia ezin izango da agertu eskari batean baino gehiagotan.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- Eskaera aurkezten denean, lotura izatea edozein herrialdeko irabazi asmorik gabeko eta ikerketara emanak diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. **Pertsona horiek UPV/EHUⁿ aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.**
- Ikertzaile bera ezin izango da agertu eskari batean baino gehiagotan.

OHAR GARRANTZITSUA: Baldin eta laguntza gauzatu bitartean ikertaldeko ikertzaileei UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, ezin dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Dokumentuak:

Eskariak nahitaez aurkeztu behar dira ingelesez, eta honako agiriak erantsi behar zaizkio eskaerari:

- Ikertzaile nagusiaren NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Ikertzaile nagusiaren bizileku ziurtagiria, bizileku iraunkorreko txartela edo atzeritarren nortasun agiria, betiere indarrean direlarik.
- Proiektuaren zientzi memoria formatu librean.
- Talde kide guztien CVA. Onartutako ereduak deialdian bertan agertzen dena

- eta CV arautua izango dira.
- UPV/EHUko Etika Batzordearen aldeko txostena.
 - Sinaduren orria: **Agiri honek UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta egon behar du.**

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Behekoak joko dira gastu hautagarritzat:

- Langileen kontratazioa (Doktorego aurreko eta doktore ondoko kontratuak)
- Material inbentariagarria
- Material suntsikorra.
- Bidaiak eta egonaldiak
- Beste gastu batzuk

UPV/EHUko ikertzaile nagusiak aurkeztutako eskaerek zehar kostuen %5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko-jasotakoa aplikatuz, **irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko otsailaren 28ko 17:00etara arte.

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko otsailak 14	Ikertzaile nagusia	Bidali "I. eranskina" proposatutako ikertaldeak berrikusteko: convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2018ko otsailak 21 Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkarri legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.	Ikertzaile nagusia	Bidali aurrekontua eta "Ikerketan parte hartu dutenen zerrenda" agiria (convocatorias.dgi@ehu.eus) <u>sinadura guztiekin.</u> Fase honetan ez da zientzi memoria bidali behar.
2018ko otsailaren 28ko 19:00ak arte	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera osoa artxibatzeko: convocatorias.dgi@ehu.eus

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, BBVA Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

BBVA Fundazioarekiko harrema:

- E-mail: ayudas-investigacion@fbvva.es

UPV/EHUrekiko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio zabalagoa:

<https://www.fbbva.es/ayudas/ayudas-equipos-investigacion-cientifica-big-data-2017/>